

4. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresaren sozioak hasiera batean Eneritz Zapian, Lur Laborde, Naroa Azkarate eta Irati Garayoa izango gara. Sozio bakoitzak zeregin ezberdinak izango ditugu enpresaren barruan.

- Naroa publizitatea eta propaganda egiteaz arduratuko da.
- Lurrek beste enpresekin eta hornitzaileekin edukiko dugun harremanetaz arduratuko da; salmenten ingurukoak berak kontrolatuz (hornitzaileei eskaerak...)
- Eneritzek diru kontuak, tasak, prezioak... kontrolpean edukiko ditu.
- Iratik web orrialdea sortu eta kontrolatuko du, eta enpresako emaila begiratu; bezeroen zalantzak argitzeko edota haien eskaerak jasotzeko.

Baina horrez gain, gure enpresak zenbait aliantza egingo ditu beste jarduera mota batzuetako enpresekin, beti helburu bezala salmentak eta diru iturriak (etekinak ere, noski) handitzea izanik.

Lehenik, materiala leku batetik bestera garraiatzeko DHL enpresarekin jarriko gara kontaktuan, erraztasunak izan ditzakegu enpresa honekin gure lokala egongo den poligono berdinean egongo delako, Belartzan. Hortaz, materiala alokatzen duen pertsonak garraio enpresari esker gehiago ordainduz gero, alokatutakoa nahi duen lekura eramango diogu; prezioa egin beharreko distantzia eta materialen bolumen nahiz pisuaren arabera izango da.

Bigarrenik, inguru honetara lehen aldiz etorri edota hain ondo ezagutzen ez dutenenei informazioa errazteko, turismo enpresa ezberdinekin ere kontaktuan jarriko gara. Honi esker, haiek eskaintzen dituzten bidaietan gure kirola egiteko materiala sartzeko aukera izango dute, eta alderantziz. Adibidez asteburu bat mendian ibiltzera eta piraguismoa praktikatzera joateko pak batean piragua egoteko material guztia edota mendirako botak guri enkargatzeko aukera izango dute; ondorioz, turismo enpresari merkeagoa aterako litzaioke materiala eta guk etekinak atera ahal izango genituzke. Aldi berean, dendako kaxa alboan, turismo bulegoa publizitatuko dugu eta haiekin hitzartutako prezioaren arabera, bezeroak gehiago ordaintzekotan, monitore bat, guia bat edota beste plan bat egiteko aukera izango du. Beste ideia bat bale moduko batzuk eskaintzea da, turismo enpresei aukera emango baitiegu hilabetean behin zozketa bat egiteko eta, esate baterako, bertiz parkerako sarrerak zozketatzea, materiala guk eskainiz.

Gure enpresa mantentzeko materialak lortzeko Decathlon enpresarekin jarriko gara harremanetan, enpresa hau gertu daukagunez oso erraz lortuko ditugulako materialak. Alaber, gu enpresa bat izanda Decatholonek deskontu bereziak eskaintzen dizkigu guk egingo ditugun erosketak handiagoak izango direlako. Hala ere, haiekin hitz egin baina lehen ezin dugu jakin zenbateko deskontua den eta beraz, materialak erostea zenbat kostatuko zaigun.

Telefonika enpresa batekin ere kontaktuan jarri beharko gara gure web orriak
wifi bitartez funtzionatuko duelako.